

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AGURAINGO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2014.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 26an Aguraingo Udalaren eta Lur Lautada XXI Hirigintza Sozietatea bere sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa.

Txostenak ondorioztatu du bai Udalak bai Sozietateak **zuzentasunez bete dutela** 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **lege arautegia**; Udalean, baina, zenbait huts azaleratu dira **Administrazioko Kontratazioaren** atalean, hala nola, 2 kontraturen lizitazioa ez da ez EBAOn ez EAOn argitaratu; kontratu bat pleguko baldintzak betetzen ez zituen pertsona fisiko bati esleitu zaio; funtzionarioek soilik egin ditzaketen zerga ikuskaritzako jarduerak kontratatu dira, eta 3 espediente publikotasun eta lehia printzipioak urratuta esleitu dira.

**Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du; alabaina, Sozietateari dagokionez Ondare Garbia 327 milioi euroan murriztea eragiten duten hainbat doiketa azaleratu ditu. Gainera, saldoen antzintasuna dela eta, ezin zehaztu izan dugu 2014ko abenduaren 31ko Izakinen saldoaren zein zati den egiaz egingarri. Erregistraturiko zenbatekoa, 629 mila euro, hirugarrenei eragindako hirigintzako kudeaketa gastuei dagokie.

**Finantza egoerari** dagokionez, Epaitegiak adierazi du 2012-2014 hirurtekoan diru-sarrera ezohikoak gertatu direla, eragiketa arruntetan aurrezki mugatua eskuratzeko bide eman dutenak. Ordea, aurrezki hau ez da 2013 eta 2014an nahikoa izan kapital eragiketetan desoreka finantzatzeko. **Udal zor handiaren** amortizazio eta interesei datozen urteetan sarrera arruntan ehuneko handi bat xurgatuko dute eta horregatik, premiazkoa da sortutako aurrezkiaren ehuneko areagotzea.

Amaitzeko, txostenak ondorioztatu du Udalak 2014an **aurrekontuaren egonkortasun** eta **gastuaren araua bete dituela**. **Ez du**, baina, **zor publikoaren helburua bete**: 2014ko abenduaren 31n zor bizia ekitaldiko sarrera arruntan gainean % 149koa da, muga % 110ean finkatua dagoela. 8/2012 Foru Arauak Udalarentzat onartutako Aurrekontuaren eta Finantzaren Bideragarritasun Planak azken ehuneko hori 2017an lortzea aurreikusi du, indarreko araudiaren arabera epemuga 2020a delarik.

